



**2025EKO EKAINAREN 16KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko ekainaren hamaseian, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertarutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkeztu da 2025eko ekainaren 3an egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2025eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 48 zenbakidun zerrenda, LAUROGEI MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA HAMABI euro ETA HIRUROGEI-TA HAMAHAZPI zentimokoa (80.532,77 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- BERME ITZULKETA (SASOI ERAIKUNTZAK, S.L., ELOSEGI KALEA 19).-

2019ko urriaren 14an, Alkatezako Ebazpen bidez, "Elosegi kalea, udaletxearen aurrean, berrurbanizatzeko 1. faseko obraren" kontratua SASOI ERAIKUNTZAK, S.L. enpresari esleitu zitzaion, eta beronek 7.957,18 €-ko behin-betiko bermea aurkeztu zuen abal baten bidez, esleipenaren aurretik.

2025eko maiatzaren 23an SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.-k Udalaren erregistro elektronikoaren bitartez, behin betiko berme hau itzultzeko eskaera egin zuen.

Udaleko Arlo Teknikoko Koordinatzaileak burutu duen txostena ikusi da, kontratua behar bezala bete dela esanez eta ez dela erantzukizunik izan bermeari erantzuteko.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) aipatu du zenbait baldosa altxatuta daudela eta ea horren erantzukizunik ezin ote zaion eskatu orain.

Gai hau Udal teknikariarekin argitzeko erabakia hartu da, bermea bueltatzea erabaki aurretik. Beraz, batzorde honek, aho batez, momentuz bermea ez bueltatzea erabaki du.

IV.- LAZKAOKO UDALAREN SEXU-JAZARPENARI ETA SEXU ARRAZOIAREN ARABERAKO JAZARPENARI AURRE EGITEKO PROTOKOLOA.-

Berdintasunaren eta jazarpenaren prebentzioaren arloan indarrean dagoen araudia betetzeko eta lan-ingurune segurua eta errespetuzkoa bermatzeko, Lazkaoko Udalaren protokoloa egin da, sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horren aurrean jarduteko. Protokolo horren edukia ATE Personas aholkularitza juridiko espezializatuak idatzi du.

Protokolo hori aldez aurretik negoziatu da langileen ordezkariarekin, eta bilera egin da 2025eko ekainaren 12an. Bilera horretan, protokoloaren edukiari buruzko akordioa lortu da.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) euskaraz idatziriko testuan zuzenketa batzuk egitea proposatu du. Behin zuzenketa horiek txertatuta, aurrekoa ikusirik, Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, ondorengoa erabaki du:

Lehena.- ATE Personas enpresak egindako "Lazkaoko udalaren sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horren aurrean jarduteko protokoloa" onartzea.

Bigarrena.- Programa berehala zabaltzea Lazkaoko Udaleko enplegatu publiko guztien artean, eta behar diren neurriak abian jartzea hura eraginkortasunez aplikatzeko.

Hirugarrena.- Bilkura horretan bertan, Aitana Amondarain (Kontu-hartzailea), Idoia Garmendia (Idazkaria), Mikel Zabala (Udaltzainburua) eta Anartz Eztala (Kirol-monitorea eta langileen ordezkaria) izendatzea protokoloaren jarraipena eta kudeaketa egiteko ardura duen aholkularitza konfidentzialeko kide.

Laugarrena.- Giza Baliabideen Arloari agintzea protokoloa betetzen dela ikuskatzeko eta jarraipena egiteko, bai eta langileak sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren prebentzioaren arloan prestatzeko eta sentsibilizatzeko ere.

V.- KIROLEKO, AISIALDIKO ETA DENBORA LIBREKO INDARKERIAREN AURREAN ADINGABEAK BABESTEKO ETA JARDUTEKO ESPARRU-PROTOKOLOA.-

Jarduera fisikoaren, kirolaren eta aisialdiaren eremuan adingabeak babesteari eta indarkeria prebenitzeari buruz indarrean dagoen araudia betetz, «Jarduera fisikoaren eta kirolaren eremuan eta aisialdiaren eremuan adingabeak babesteko jarduketa-protokolo markoa» egin da, eta haren edukia ATE Personas aholkularitza juridiko espezializatuak idatzi du.

Protokolo hori aldez aurretik negoziatu da langileen ordezkariarekin, eta dagokion bilera egin da horretarako, 2025eko ekainaren 12an.



Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio Protokoloa onartua izan aurretik, zenbait talde protokolora atxikitu direla.

Alkateak erantzun du Udalak talde hauei dirulaguntzak emateko hitzarmenak bideratu nahi zituela, eta ez zuela hauek kaltetuak izatea nahi protokola onartua izan arte itxaron behar izanda.

Hau guztia ikusirik, Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, honakoa onartu du:

Lehena.- "Jarduera fisikoaren eta kirolaren eta aisialdiaren eremuan adingabeak indarkeriaren aurrean babesteko jarduteko esparru-protokoloa" onartzea.

Bigarrena.- Plana zabaltzea arlo horietan esku hartzen duten Lazkaoko Udaleko arduradun eta langileen artean, eta behar bezala aplikatzeko behar diren neurriak ezartzea.

Hirugarrena.- Giza Baliabideen arloa, Kirol arloa eta Kultura arloa izendatzea protokoloa betetzen den ikuskatzeko, jarraipena egiteko eta prestatzeko.

VI.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 25-11-03 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua murriztea apirilaren 10etik aurrera, astean 10 orduetik 5 ordura. Onuradunen ekarpena % 74koa izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 25-01-007 zenbakidun esped.: alokairu gastuetarako hilean 205 €-ko dirulaguntza eta etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 123 €-ko dirulaguntza ematea ekainetik abendura. Eman daitekeenaren % 82 da.

Gizakia Helburura joateko garraiorako dirulaguntzak.-

- 25-14-02 zenbakidun esped.: garraiorako, apirilean 208,80 € eta maiatzean 300 €-ko dirulaguntza ematea, Gizakia Helburura egiten dituen garraio gastuak ordaintzeko.

Udal zerga eta tasak ordaintzen laguntzeko dirulaguntza.-

Udal zerga eta tasak ordaintzeko laguntzak emateko aurkeztutako eskaerak aztertu ondoren, bere espedientean dauden 32 zergadunen eta bakoitzari dagokion zenbatekoaren arabera, guztira 11.979,76 €-ko dirulaguntza ematea.

Ludoteka eta kirol ikastaro zerbitzurako dirulaguntza.-

Haur hezkuntzako 3 urtetatik lehen hezkuntzako seigarren maila artean dauden 20 haurri, bere espedientean zerrendatzen direnak, ludoteka zerbitzura joateko ordaindu beharreko kuotaren pareko dirulaguntza ematea, guztira 1.886,00 €.

Joxemiel Barandiaran Udal kiroldegiko bazkidetza eta jarduerengatik ordaindu beharreko tasak ordaintzeko laguntza ematea.-

- 25-23-02 zenbakidun esped.: semearen igeriketa ikastaroa ordaintzeko 60,05 €-ko dirulaguntza ematea. Ikastaroa 25 saiokoa da, urrian hasi eta maiatzean amaitu da. Eskatutakoaren % 100 da.

VII.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Mikel Insausti Garmendiari.-

2025eko San Prudentzio jaietan XII. pelota txapelketa antolatzeagatik 734 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 480.03.338.00 partidatik egingo da.

Danak elkarteari.-

2025eko San Prudentzio jaietan toka txapelketa antolatzeagatik 700 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 481.11.334.00 partidatik egingo da.

VIII.- HEZKUNTZA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Hezkuntza batzordeburuak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hau hartu du:

San Benito Ikastolari.-

Udalaren eta San Benito Ikastolaren artean 2025ean izenpetutako hitzarmenaren arabera, urteko dirulaguntzaren lehen zatia ematea. Hau da, 11.500 € ematea jarduera desberdinen antolaketarako.

Ordainketa aurrekontuko 1 481.02.323.00 partidatik egingo da.

Lazkao Txiki Musika Eskolari.-

2025. urterako aurreikusitako dirulaguntzaren azken zatia, hau da, 35.000 €, orain ordaintzea.



Ordainketa 2025eko 1 481.02.326.00 partidatik egingo da.

IX.- KIROL ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kirol eta gazteriako zinegotziak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honakoa erabaki du:

Lazkaoko Txirrindulari Elkarteari.-

2025 urtean hiru txirrindulari lasterketa antolatzeagatik, 10.500 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa 1 481.01.341.00 partidatik egingo da.

X.- EKONOMIA SUSTAPENA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Merkatariei erosketa bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2025eko maiatzean martxan jarritako erosketa bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beraien saltokitan jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei bigarren ordainketa egitea:

MERKATARIA	GUZTIRA	DIRULAGUNTZA
LEIRE CONDE ABELLA (PinKIDS Akademia)	120,00	30,00
LEIRE CONDE ABELLA (PinKIDS Akademia)	100,00	25,00
NEKANE GARMENDIA...CB (GARAIZ)	3.210,00	802,50
GERRIKO SL	255,00	63,75
IDOIA GODOY ATXAGA (FARMAZIA)	830,00	207,50
ARANTXA FERNANDEZ (GAZI GOZO)	500,00	125,00
ARANTXA FERNANDEZ (GAZI GOZO)	1.050,00	262,50
GARAZI ZUFIRIA (ARRIARAN MERTZ.)	820,00	205,00
MIKEL LUZURIAGA (MIKEL OPTIKA)	900,00	225,00
MIKEL LUZURIAGA (MIKEL OPTIKA)	3.650,00	912,50
OREKA OKINDEGIA SL	310,00	77,50
MARIANA OSTERTAG (MAMUFO)	75,00	18,75
JON SANTOS MARTIN	105,00	26,25
GERRIKO SL	140,00	35,00
LEIRE VELASCO SEISDEDOS (LEIRE ESKULA)	530,00	132,50

JOANA PLASENCIA ZUNZUNEGI (XANU)	2.595,00	648,75
NAGORE COLORADO... (MANAKO)	1.980,00	495,00
AGURTZANE DE MIGUEL... (KOKKOR)	40,00	10,00
JAVIER GUTIERREZ HERNANDEZ (UNARO)	460,00	115,00
EIDER LUNA (STYLO ILEAPAINDEGIA)	1.350,00	337,50
AMAIA SUKIA MAIZ (AMETS BAT)	705,00	176,25
JOSE ANTONIO INSAUSTI (ESTANKOA)	2.200,00	550,00
RAKEL OIARBIDE (EIRE ILEAP.)	475,00	118,75
GUZTIRA	22.400,00	5.600,00

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.

Merkatariei 2025eko irekiera eta obrenatik.-

Lazkaoko merkataritza eta ostalaritza jardueraren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2025erako onartutako dirulaguntzak direla eta (jardueren irekiera eta modernizazioa) jasotako honako eskararen ondorengo dirulaguntzaren ordainketa egitea:

MERKATARIA	GUZTIRA
Ala Lesbia Huete (Chaman janaridenda) (Obra 110; irekiera 1.500; errotuloa euskaraz 440)	2.050,00
GUZTIRA	2.050,00

Ordainketa 2025eko udal aurrekontuaren 1 471.03.433.01 partidatik egingo da.

XI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio, laneko arriskuen prebentzioa daraman Qui-ronprevencion enpresak formakuntza bati buruzko posta elektronikoa bidali zuela, eta hau erdera hutsean bidali zuela. Honen inguruan enpresari zerbait esateko eskatu du.

XII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko seiak eta bost direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.

